


# DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

## 2013 TXOSTENA

donostiako emakumeen etxea elkartea
asociación de la casa de las mujeres de donostia

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad

# AURKIBIDEA

SARRERA 3

DATU OROKORRAK

ETXEAREN HOBEKUNTZAK

ZERBITZUAK 9

PROIEKTUAK 15

TREBAKUNTZA 22

IKASTAROAK ETA TAILERRAK

HITZALDIAK

ERAKUSKETAK 78

BESTELAKO JARDUERAK 82

# SARRERA

# Emakumeen Etxea

**Mugimendu eta elkarte feminista nahiz Udalaren Berdintasun Atalaren arteko partaidetza-prozesu baten ondorioz sortu zen Emakumeen Etxea. Prozesu berak eredu aintzidaria sorrarazi du, Emakumeen Etxearen kudeaketa mistoarena, hain zuzen.**

**Donostiako Emakumeen Etxearekin batera topagune bat sortu dugu, non konplizitateak eta esperientziak elkartrukatuz ekimen kolektiboa bideratzea errazten dugun, betiere emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eragingarri bat lortzeko bidean aurrera egitearren.**

**Etxea erreferentziazko gune bat da, udalerriko emakume guztientzat ez ezik, Lurralde Historiko eta Autonomia Erkidegokoentzat ere bai, zeren eta, gizarte parekide bateranzko eraldaketa sozialaren prozesuaren baitan, oinarri-oinarrizkotzat jotzen baitu gure partaidetza, bai hiritar aktibo gisa, bai eta geure interesen aldeko aldarrikapen eta mobilizazioaren protagonista gisa ere.**

**Emakumeen Etxea espazio fisikoa da, sinbolikoa izateaz gain. Obedientzia ukatzeko, gogoeta egiteko, ekiteko eta pentsamendua ekoizteko esperientzia etengabeak sustatzen ditu. Donostiako mugimendu feministaren eta emakumeen erreferentziazko gunea da.**

# Datu orokorrak

## Bisita kopurua: 40.042

## Urtean zehar hilabete bakoitzeko bataz bestekoa: 3.336

Egindako jarduerak--Actividades que se han realizado




Jardueren hizkuntza-Idioma de las actividades



# Datu orokorrak

**Etxean egiten diren ekintzen berri eskaini da:**

Donostiako Gizarte Zerbitzuetan

Donostiako Udaleko Kultur-etxeetan

Martuteneko kartzelan

Gurutze Gorriari

Aieteko Gaztelekuan

**Kogestio bilera kopurua** (Administrazio publikoaren, elkarte-sarearen eta Donostiako emakumeen partaidetza daukan kide anitzeko organoa da, gune komunen erabilera arautu eta koordinatzeko helburua duena)**:** 8

**“Sukaldea Programaziorako Gunea” bilera kopurua (ekainetik aurrera):** 5

**Elkarteko bazkideak:** 253

# Emakumeen Etxean hobekuntzak

Aurtengo urtean hainbat hobekuntza eman dira etxean:

## Infraestruturei dagokionez:



-Komuna gurpildun aulkian doazen pertzonentzat egokitzea.

-Informatika ikastaroak egiteko mahai eta arbela





-Balioanitzeko gelan kortina

-Etxean sartzen diren pertsona kontagailua





-Pardelak aldatzeko mahia

## Komunikazioari dagokion:

-Hileroko egitarauaren deiseinu berria




-Etxean egiten diren ekintzen Web orri berria




## Funtzionamenduari dagokion:

**-Sukaldea Programaziorako Gunea.** Espazio honek Emakumeen Etxean ekintzak, tailerrak eta proiektuak eskaintzen dituzten baita eskainiko dituzten elkarteei eta emakumeei dago zuzendua. Gune honek elkar ezagutu, adostu eta koordinatzeko helburua du.

**Besteak:** -Etxearen kanpoko aldean zuhaitzetan dekorazioa, airepurifikatzailea

# ZERBITZUAK

# Aholkularitza juridikoa



**Parte hartzaileak:** 219

**Hizkuntza:** Gaztelera eta euskara

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakume Bananduen Elkartea eta Arrats Elkartea

**Astean behin bi elkarte horiek emakumeei informazio eta aholkularitza juridikoa eskaintzen zaie dituzten zalantza edota gatazken aurrean erreminta legalak izan dizaten.**

# Ikasketa homologazioa

www.bidezbide.wordpress.com
bidezbide@hotmail.com

**Parte hartzaileak:** 210

**Hizkuntza:** Gaztelera eta euskara

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Bidez Bide Elkartea

**Atzerrian eginiko ikasketak balioztatzeko informazioa eskaintzen du elkarteak astean behin etxean. Hala izapideak egiteko eman beharreko pausuak et abar azaltzen dizkieta emakume, oro har, atzerritarrei.**

# Lahia nahia




**Parte hartzaileak:** 209

**Hizkuntza:** Gaztelera eta euskara

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Lahia Nahia Elkartea



**Sexu eta generoaren inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzen dute astean behin bereziki gazte eta nerabeei zuzenduriko saioetan.**

# Jabetze taldeak

**Parte hartzaileak:** 60

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urte osoa, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Aizan Elakartea

**Talde dinamika desberdinen bidez indarkeria bizipen desberdinetatik igarotako emakumeek autoestimua, elkarren arteko laguntza eta ….lantzen dute.**

# Ordenagailuak




**Data:** Urte osoan zehar

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila eta Emakumeen Etxea Elkartea

**Egun osoan zehar ordenagailuak daude erabilgai emakumeek kontsultak eta informazioa nahiz komunikazioan lagundu eta trebatzeko.**

# PROIEKTUAK

# Emakume ijito errumaniarren gunea




**Parte hartzaileak:** 35

**Hizkuntza:** Gaztelera eta errumaniera

**Data:** Urtarriletik uztailera

**Dinamizatzailea:** Adriana Villalon

**Antolatzailea:** Donostiako Udaleko kultur arteko bitartekaritza eta bizikidetza programa

**Gune honetan errumaniako emakume rrom-ijitoak eguerdiko tartean elkartu eta elkarrekin gai desberdinak lantzeko eta Etxea gune erreferentziala bilakatzeko gunea da.**

# Emakume etorkinen kulturaniztasun taldea




**Parte hartzaileak:** 36 emakume igaro dira

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila, Kulturaniztasun Saila eta Garaipen Elkartea

**Dinamizatzailea:** Ana Murcia eta Tania Siriany

**Gune hau jatorri desberdinetako emakumeentzat sorturiko asialdi eta dibertsioneko gunea da. Helburua da elkar ezagutzea, osasun fisiko eta emozionala hobetzea, zubiak eraikitzea eta sarea egitea, ongi pasatzea eta baliabide desberdinez informatzea Donostira kanpotik etorritako emakumeei. Horretarako astero elkartuz.**

# Indarkeria gabeko bizitza baten alde




**Parte hartzaileak:** 10 emakume igaro dira

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:**Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea**: Berdintasun Saila eta Garaipen elkartea

**Dinamizatzailea:** Enma Lopez eta Marta Berra (Garaipen Elkartea)

**Edozein indarkeria egoera igarotako emakumeei laguntza eskaintzeko gunea da. Helburua taldean indarkeria-bizipena izandako emakumeek euren beldurrak, hausnarketak, zailtasunak lantzea da dinamika parte hartzaileen bidez.**

# Zaintzen gunea



**Parte hartzaileak:** 10

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:**Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila

**Dinamizatzailea:** Pepa Bojo

Pertsonok zainduak gara eta zaintzen dugu, bizitzan zehar hainbat une eta eratan.Batzuetan polita izan daiteke, beste batzuetan ez baina, zergatik eta nola zaintzen dugu?

Pepa Bojo psikologoaren eskutik, zaintza lanak eztabaidatu ditugu. Gai honetan espezializatua dago egunerokotasunean bizi ditugun zalantza eta beldurrak lantzen lagundu digu, baita ere, familiarteko negoziaketak bideratzen bakoitzaren eskubideak eta aisialdiaz gozatu ahal izateko.

# Denda Gratix




**Iraupena:** Urte osoan zehar

**Antolatzailea:**Emakumeen Etxea elkartea




**Sistemak sustatzen dituen ordenaren eta kontsumoaren aurrean sorturiko doako denda da. Bertan emakumeek arropa, tresna, liburuak edota bestelako materiala utz eta har dezakete erabat doan.**

# Ekofeminismo laborategia



**Parte hartzaileak:** 5

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Iraupena:** Martxotik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Monika Sojo eta Elena Rincón

**Bizi garen errealitatearen inguruan hausnarketarako Gune Feminista, gizartean eragina politikoa izateko,analisia, hausnarketa eta ekintza feministak baliatuz, eta askotariko ekologismoak aintzat hartuta, eraldaketa sozialean parte hartzeko**

# TREBAKUNTZA

# Sorginbanda--Batukada feminista



**Parte hartzaileak:** 30

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Iraupena:** Urte osoan zehar

**Antolatzailea:**Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:**Arantxa Vicedo

Emakumeok osatutako batukada talde bat sortu dugu.

# Informatika: lehenengo pausoak ordenagailuekin




**Parte hartzaileak:** 20

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urte guztia, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Merche Tranche, Nora Alejos eta Arantxa Olañeta

Internet, office librea eta orokorrean ordenagailuaren erabilera landu eta trebatzeko oinarrizko saioak dira.

# "Ventaneras": emakumeek idatzitako gaztelaniazko literaturaren berrirakurketa




**Parte hartzaileak:** 18

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Berditasun Saila

**Dinamizatzailea:** Mertxe Trantxe

Mendeetan zehar, ez da izan emakumeentzat *mari-bandera* edo *hitzontzi* deitzea baino irain handiagorik. Etxe edo komentuetan itxita bizi zirelarik, leihoa zuten ihesbide eta askabide bakar; eta idatzizko hitzak, berriz, gogamenaren leiho. Haien liburuak dira, orain, gure horma baoak emakumeei –guri begira ere badauden emakume horiei– kanpotik barrura begiratzeko eta haiekin eta guri esateko zeukatenarekin egiaz topo egiteko.

# Mito literarioak eta irakurbide feministak




|  |
| --- |
| **Parte hartzaileak:** 15 |
| **Hizkuntza:** Euskara |
| **Data:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik |
| **Antolatzailea:** Berdintasun Saila |
| **Dinamizatzailea:** Iratxe Retolaza |

Mito literarioak mundu ikuskera bat transmititzeko erabili ohi dira, eta bertako pertsonaiak jarrera sozial eta kultural baten ikur izan ohi dira. Zentzu horretan, mito literario guztiek genero ikuskera bat garatzen dute, eta genero rolak transmititzeko bide eraginkorra izan dira historian zehar. Mito literarioak kultura-, erlijio-, gizarte- eta geografia-eremu jakin bati atxikiak bizi direnez, zentzu eta egitura aldakorrak dituzte. Ikastaro honetan mito literario horietan gorpuzturiko genero eraikuntzak aztertu ditugu, eta historian zehar mito literario horiek nola gaurkotu diren ere aipatu dugu, betiere berrirakurketa feministak jorratu dituzten proposamen literarioetan arreta berezia jarriz.

# Irakurbide eskola feminista




**Parte hartzaileak:** 29

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Urte guztia, uztaila eta abuztua izan ezik

**Antolatzailea:**Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Iratxe Retolaza

Irakurle talde honetan pentsamendu feministan arakatzea izan dugu helburu, eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izan ditugu eztabaidagai. Horretarako, hainbat irakurgai (testu solteak, artikuluak edota liburuak) landu, eta horien inguruko gogoeta egin dugu, betiere diskurtso feministek zabaldu dituzten bidezidorretan ibiltzeko asmoz, nork bere esperientziatik, nork bere gorputzetik.

# Xake




**Parte hartzaileak:** 20

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Iraupena:** Urte guztia,abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Julia Gallego

Emakumezko xake jokalariak sortzea eta bultzatzea helburu du taldeak. Horretarako, lau maila sortu dira eta trebatzeko nahiz ongi pasatzeko elkartzen dira etxean.

# Antzerkia




**Parte hartzaileak:** 14

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urte guztia, abuztua izan ezik

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Lurdes Tejero

Gorputz eta antzezpen lanaz gain, azkenengo emanaldirako euskarri gisa baliogarria izan dakigukeen sormen artistiko lana sartu dugu baita ere: maskarak, jantziak, ikusentzunezkoak, argazki-kollage,… eta prozesu koletiboan bururatzen zaiguna.

# Aliento experimental



**Parte hartzaileak:** 16

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Otsailetik Martxora eta uztailean

**Antolatzailea:** Garaipen Elkartea

**Dinamizatzailea:** Maider Andonegi

Arnasketaren bidez prozesu pertsonala lantzeko modua da. Bide horretan norberak berekiko konfidantza, desidak eta mugak lantzen ditu. Horretarako topagunea sortzen da eta harremanak garatzeko bidea ere eskaintzen da.

# Feminismoa ez feministentzat



**Parte hartzaileak:** 19

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urtarriletik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Maria Castejon

Feminismoaren lehen hastapenak eta oinarrizko kontzeptuak lantzeko saioa teorikoak dira.

# Diba feminista ezezagunak




**Parte hartzaileak:** 26

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Otsailetik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxearen Elkartea

**Dinamizatzailea:** Itziar Ziga

Saio hauetan historian zehar leku desberdinetako emakume ezanguratsu ezezagunak ezagutu eta euren bizitzak, hausnarketak eta abar landu dira.

# Mugitu feminismoan



**Parte hartzaileak:** 9

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** Otsailetik martxora

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Ana Revuelta

Tailerrak izaera teoriko-praktikoa du. Horrek esan nahi du ez dela denbora osoan etengabe mugimenduan aritzen, baizik eta tarteka, testu interesgarriren bat irakurri eta komentatu edo bideo performance bat ikusi ere egiten da.

# Mugimendu feministaren historia




**Parte hartzaileak:** 16

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** Apiriletik ekainera

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Emagin Elkartea

Mugimendu feministak, ez dira orain dela hamarkada bateko kontuak. Izan ere, feminismoa, emakumeek munduko herrialde guztietan aurrera eramandako borroka eta ekarpenari esker garatzen joan baita. Baina gaur egungo feminismoak badu bere jatorria, testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoa.

# Autodefentsa




**Parte hartzaileak:** 23

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** Martxotik ekainera

**Antolatzailea:**Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Idoia Arraiza

Jokabide, jarrera eta tresnak garatzea du helburu indarkeria egoeratan aurre egin ahal izateko. Horretarako, autoestimua indartzea eta jendartean ezarrita dauden generoaren araberako rolen inguruko kontzientzia hartzea edota esnatzea lantzen da.

# Autodefentsa feminista




**Parte hartzaileak:** 42

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Iraupena:** Uztaila

**Antolatzailea:** Berdintasun Saila

**Dinamizatzailea:** Emagin Elkartea eta Maitena Monroy

Autodefentsa feministaren inguruko hiru saio eskaini dira, egun osokoak, emakumeek euren burua defendatzen trebatzeko. Asmoa jakintza teorikoak eta fisikoak lantzea da edozein erasoren aurrean defendatzeko ziurtasuna, autoestimua eta gaitasuna garatzeko.

# Denboraren bankua




**Parte hartzaileak:** 12

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urritik Abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Elena Rincon

Dirurik gabeak baina aberatsak gara. Askotan ez dugu dirurik behar, baizik eta aukera izan zerbitzuak eskuragarri izateko eta elkar trukatzeko

# Arnasketa eta mugimenduaren bizipenaren bidez gorputz objetutik gorputz sujeturako bidea.




**Parte hartzaileak:** 19

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** Urritik Abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Maider Andonegi

Diskurtso feministek aspalditik diote emakumeoi gure gorputzaz gabetu gaituztela. Objetu eder bezala eraikiak izan gara , kanpotik ezarri diguten kanona ondo betetzen dugularen esperoan, pasibitatera eta gelditasunera erbesteratuak. Perfekzioaren tranpan giltzatu eta sujetu hetereo bezala idealizatu gaituzte. Estrategikoki, emakumeak geure materia eta haragitik bereiztuak izan gara. Usaindu, handitu, zabaldu, aldatu, zarata egin eta Lurrean toki bat betetzen duen gorputzetik banandu gaituzte. Tailer honetan dibortzio mingarri honi aurre egin diogu: arnasketa lanaren bitartez, gure gorputza nabaritzen, usaintzen, mimatzen eta entzuten!

# Bideogintza




**Parte hartzaileak:** 4

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** Urritik Abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Itziar Bastarrika

Bideogintza, edo ikus entzunezko komunikazioa, beste hizkuntza mota bat da. Adierazi nahi dugun hori esateko modu bat. Tailer honetan, lan kolektboa eginez, ikus entzunezko dokumental bat sortu dugu elkartzen gaituen gai bat abiapuntutzat hartuz. Bideoak sortzen ikasiko dugu, lan horrek suposatzen duen fase guztietatik pasatuz.

# Brikolajera




**Parte hartzaileak:** 18

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Iraupena:** Urritik Abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Ana Arrigegomezkorta

Brikolaje mundua emakumeok aukera gutxi izan dugu ezagutzeko. Ikastaro honetan, onarrizko gauzak landu dira, beldurrak eta estereotipoak apurtuz.

# Sexualitateak gure gorputz sexudunen du bere lekua eta garatzeko aukera




**Parte hartzaileak:** 8

**Hizkuntza:** Elebidun

**Iraupena:** Azarotik Abendura

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Kontxi López

Gure gorputzaren aukera erotikoek gauza gutxik bezala pizten dituzte plazera eta irrika, itxaropena eta mina, eztabaida eta isiluneak. Gure gorputzarekin ez ezik, hitzekin, irudiekin, erritualekin eta fantasiekin dago lotuta sexualitatea. Bizitza osoan gurekin daramagu sexualitatea. Pertsona guztiak gara sexudunak, eta, horregatik, plazera eta komunikazioa lortzeko tresna dugu gorputza. Ikerketa laborategi batean bezala. Inoiz ez da beranduegi norbait maitatzeko edo gorputzean sentsazio gustagarriak izateko. Gure gorputz sexuduna ezagutu behar dugu; sentitzeko aukerak ezagutuz gero, plazer-mota gehiago hautemango ditugu sexu-jolasean.

# Bizikleta mekanika




**Parte hartzaileak:**

**Hizkuntza:** Euskara

**Iraupena:** Urtarrila

**Antolatzailea:**Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Kattainak Bizikletan

Ikastaro honen bidez emakumeek euren kabuz bizikletak konpontzeko erremintak garatzea izan du helburu.

# Knits Euskadi




**Parte hartzaileak:** 6

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Data:** Irailak 13

**Antolatzailea:** Knits Euskadi

**Dinamizatzailea:** Knits Euskadi

Puntua eta artileaz egiten duten eskulangintza bidez, emakume parte-hartzaileek, komunikazio-sareak sortzen dituzte eta topagune berriak sortzen dira, erlazio berriak eginez edota haiek indartuz.

# Esdoskitze:laguntza taldea

**Parte hartzaileak:** 12

**Hizkuntza:** Elebiduna

**Data:** Urriak 3

**Antolatzailea:** Esnearen Liga

**Dinamizatzailea:** Esnearen Liga

Sustengu taldea bilera ireki eta dohakoa da, haurdun dauden emakumeentzat, edoskitze aldian daudenentzat eta edoskitzeari buruzko interesa duen pertsona orokorrentzat. Guraso, amona eta osasungintzako profesionalak etortzen dira bereziki. Emakumeek zalantzak konpartitzen dituzte, arazoei konponbidea bilatzen eta orokorean edoskitzea aintzat hartzen duten beste emakumeen konpainiaz gozatzen dute. Monitoraren papera, bere haurrei bularra eman eta Nazioarteko La Leche League-en partetik formazioa jaso duen emakumea, hizpide diren gaiak edoskitze eta amatasunari buruzkoak direla bermatzea da eta beharrezkoa denean informazio zehatza eskaintzea beti ere errespetu eta enpatia erakutsiz, horrela emakume guztiak onartuak eta ongi etorriak sentitu daitezen. Esnearen Ligak eskaintzen duen amatik amarako sustengua bereziki eraginkorra da edoskitze naturala modu normal batean gertatu dadin portaera egokienak susatzeko, horrela edoskitzea eta amatasunarengan amen autonomia, independentzia eta garapen integrala handituz.

# Emakume etorkinentzako irrati tailerra




**Parte hartzaileak:** 4

**Hizkuntza:** Elebidun

**Data:** Azaroak 6,7 eta 13

**Antolatzailea:** Bozak

**Dinamizatzailea:** Aitziber Zapirain

Donostia-n bizi diren emakume etorkinen errealitate gordina jakinarazi dute. Pertsona hauek bertakotzea bultzatuta aniztasuna. Gainera, sentsibilizazio-kanpaina bat egin dute emakumeok patriarkatuagatik sufritzen dugun zapalkuntzaren gainean. Horretarako, sei orduko irratsaio tailerrak egin dituzte, geroago Ttanttakun eta INFO7 irratietan hedatu izan dira.

# Indarkeria matxistaren aurkako graffiti-tailerra



**Parte hartzaileak:** 14

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Azaroak 14 eta 21

**Antolatzailea:** Berditasun Saila

**Dinamizatzailea:** Axpi

Indarkeria matxista aurrean zer egin dezakegun hausnartzeaz gain, denon artean mural bat margotu dugu, kalea eta eremu publikoa berrezkuratuz.

# Fakturentzako eta bestelako burokrazientzat ere balio digu autodefentsa feministak




**Parte hartzaileak:** 5

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Azaroak 26

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Aurora Iturrioz

Emakumeak gure lana dohain emateko gara hezituak, honegatik bildurra eta segurtasun falta somatzen dugu papelen aurrean. Tailer honetan emakumeon autoestima ekonomikoa haunditu dugu, fakturak egiten ikasi, eta Ogasuna eta Gizarte Segurantza bezalako erakundeen aurrean moldatzeko tresnak landu ditugu.

# Kalean uso etxean otso



| |
|---|
| **Parte hartzaileak:** 42<br>**Hizkuntza:** Euskaraz<br>**Data:** Urtarrilak 30<br>**Antolatzailea:** Ikertze eta Sortzen |

Emakumeen aurkako tratu txarrak saihestu eta prebenitzeko programa; indarkeria matxistaren arazoa abiapuntu izanik, pertsonen arteko tratu eta errespetuaren inguruko gogoeta egiten da.



# Ekofeminismoa




**Partehartzaileak:** 35

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Otsailaren 18tik 22ra

**Antolatzailea:** Mundu Bat

Feminismoa eta ekologismoaren elementuak biltzen ditu murgilduak gauden krisi sistematikoa analizatzeko. Jardunaldi hauetan bizi-molde berri baterantz ibiltzeko emakumearen subordinaziorik gabekoaren inguruan aritu dira.

# Ekofeminismoa




**Partehartzaileak:** 35

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Otsailaren 18tik 22ra

**Antolatzailea:** Mundu Bat

Feminismoa eta ekologismoaren elementuak biltzen ditu murgilduak gauden krisi sistematikoa analizatzeko. Jardunaldi hauetan bizi-molde berri baterantz ibiltzeko emakumearen subordinaziorik gabekoaren inguruan aritu dira.

# Jabekuntzaren kontzeptu feminista




**Parte hartzaileak:** 6

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Martxoak 4

**Antolatzailea:** Aizan Elkartea

**Dinamizatzailea:** Marta González

Jabetze taldean lantzen dituen kontzeptuen teorirazioa eskaini du. Jabekuntza bera zer den eta horren inguruan hausnarketa egiteko tailer-hitzaldi irekia eskaini da.

# Joan etorriko emakume rrom-en bizitzak




**Parte hartzaileak:** 14

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Martxoak 5

**Antolatzailea:** Donostiako Kultur arteko bitartekaritza programa

**Dinamizatzailea:** Adriana Villalon

Errumaniako emakume ijitoen inguruan eta haien parte hartze zuzenarekin euren bizmodua, bizipenak eta jatorriaren inguruan aritu dira. Gainera aurkeztu duten erakusketaren testuingurua ere azaltzeko para izan dugu.

# Sexu eta ugalketa eskubideak




**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Martxoak 13

**Antolatzailea:** Paz con Dignidad, Pueblos eta Plazandreok

**Dinamizatzailea:** Arantxa Campos eta Kirsten Lattrich

Europa mailako sexu eta ugalketa eskubideen gaineko ikuspegi panoramikoa eskaini da. Baita Euskal Herriko mugimendu feministaren borroka abortuaren aldeko mahai inguruan ospatu da.

Halaber aztertu eta erabaki ziren legea geldiarazteko zein izango diren aurrera eramateko ekintzak, aliantzen politikak, eta iritzi publikoa sentsibilizatzeko beharrezko estrategia puntu nagusi honen inguruan, alegia, emakumeek modu aske eta dohanezkoan abortatzeko duten eskubidea defenditzeko

# Autoestima eta pertsonaren garapena, genero ikuspegitik

**Parte hartzaileak:** 19

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Uztailaren 3

**Antolatzailea:** Aizan Elkartea

**Dinamizatzaileak:** Marta González eta MªAngeles García

Zer gara?, pentsamendua, emozioak eta ekintza Nola eragiten digu? Sozializazio prozesua Genero aginduak eta "ondoeza" sentimenduak Zer egin dezakegu ? "Behar edo nahi" dudana sortzea?...

# Emakumeen irudia Euskal Literaturan




**Parte hartzaileak:** 15

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Ekainak 7

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Arantxa Urretabizkaia

Urtez urte, Euskal literaturan emakumeen irudia zelan isladatu den inguruan eztabaidatu eta hausnartu egin dugu.

# HistoriAztoratua




**Parte hartzaileak:** 8

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Uztailak 8

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Leire San Martin

1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea erakusketa elkartzen dituen tailer baten aurkezpena egin da. Jarduera honek parte-hartzea bultzatu du eta gai ezberdinen inguruan hausnartzeko balioko digu: emakumearen errepresentazioa beti objektu gisa eta ia inoiz subjektu aktibo bezala, gerra garaian sortzen diren emakumezkoen figuren inguruko begirada kritiko bat gure gaurkotasunetik, edota emakumearen gorputzak historikoki jasan dituen subjektibazio moduen azterketa.

Tailerraren lehenengo atala uztailan gauzatuko da eta irailetik aurrera jarraipen bat izan du. Jarduera hau Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren parte den Bake-ituna proiekturako diseinatu den plan pedagogikoaren barruan dago.

# Elkarrizketak: Etxerik gabeko jenderik ez; jenderik gabeko etxerik ez.




**Parte hartzaileak:** 14

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Uztailak 23

**Antolatzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia

Etxebizitza behar larrian dauden sebillarrek sortutako taldea da Las Corralas. Etxe kaleratzeen eta instituzioengandik jasotako utzikeria medio, etxebizitza bat ziurtatzeko antolatzen hasten dira. Egun, jabetza norena den argi ez dagoen etxebizitza bat okupatu dute. Las Corralasekin, sinergiak eta aliantzak saretzeko elkarrizketa izatea du helburu.

# Feminismoa eta partaidetza: subjetu feminista eztabaidan




**Parte hartzaileak:** 29

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Irailak 19

**Antolatzailea:** Plazandreok

**Dinamizatzailea:** Tere Maldonado eta Silvia Gil

Plazandreok taldeak antolatzen dituen jardunaldiok abiapuntu hau daukate, alegia, emakumeak ajente eraginkor garela ekintza aldatzaile eta parte hartze prozesu anitzen bilakaeran, halere, parte hartze hau ez da ematen berdintasun baldintzetan. Beraz, beharrezkoa da hausnartzea emakumeen parte hartze politikoaren era ezberdinez eta feminismoaren egitekoaz prozesu eta esperientzia anitzetan, eta ikusaraztea berauen indar iraultzailea.

# Gipuzkoako Berdintasun Kontseiluaren Eraketa




**Parte hartzaileak:** 10

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Irailak 13

**Antolatzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia

**Dinamizatzailea:** Josebe Iturrioz

Gipuzkoako Berdintasun Kontseilua eratzeko bi saio izan direla, bertan mugimendu feminista eta emakumeen elkarteko emakueak parte hartu zutela, eta oso saio baliogarriak izan direla Kontseilua aurrera eramateko.

# Emakumeen parte-hartzea Islandiako Iraultzan




**Parte hartzaileak:** 28

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Irailak 28

**Antolatzailea:** Plazandreok

**Dinamizatzailea:** Elvira Méndez

Islandiako Iraultzan emakumeek zelan parte hartu zuten eraldatze-prosesuetan hitz egin digu. Prosezu hauek, berdintasun baldintzak ez direnez sortzen, oso erakargarri izan da emakumeen partaidetzari buruzko gogoetak egiteko

# “Motxila ikustezinak”




**Parte hartzaileak:** 45

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urriak 10

**Antolatzailea:** Emakundeak

**Dinamizatzailea:**Bidez-bide

Bidez Bide elkarteak Motxila ikusezinaren trailerra aurkeztu du; prozesuan dagoen dokumentala da, lau emakume atzerritarrek espetxean izandako bizipenei buruzkoa. Ekitaldia Dolores Juliano antropologo feministaren hitzaldiarekin hasi da, espetxea ezagutu duten emakumeen errealitatea ezagutaraziz. Bigarren zatia “Emakume preso ohiak: hauskortasuna eta autonomia” ikerketaren egileek abiatu dute. Jarraian dokumentaleko protagonistek parte hartu dute, beraien esperientziak entzuleekin partekatuz. Azkenik, dokumentalaren zuzendariak hitz egin du, trailerraren proiekzioarekin amaituz.

# Plazandreok: emakumeak politikan egoteari eta ez egoteari buruzko gogoetak"




**Parte hartzaileak:** 14

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urriak 14

**Antolatzailea:** Plazandreok

**Dinamizatzailea:** Arantxa Campos eta Kirsten Lattrich

Plazandreok-en ikuspegitik eta esperientziatik emakumeen partaidetza politikoan emandako aurrerapenen eta atzerapenen inguruko hitzaldi informala edo minitailerra. Emakumeen partaidetza politikoarekin lotutako gure historia eta gure ekintzak elkarbanatzeko eta gaur egungo egoeraren eta aukera eta mehatxu berrien inguruko hausnarketa eta diagnostikorako espazioa.

# Berdintasunerako bideari ekin




**Parte hartzaileak:** 32

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urriak 16

**Antolatzailea:** Emakunde

**Dinamizatzailea:**Lanbide

Lan esparruan ekiteko asmoa duten emakumeekin mintegia. Helburua egungo ekintzailetzaren eta autoenpleguaren egoeraren inguruan eta honetarako erabilgarri dauden laguntzen eta baliabideen inguruan informatzea izan da. Aldi berean, esparru honetako emakumeen esperientziak ezagutarazi dira eta partaideek beraien proiektuak aurrera eramatean dituzten itxaropenak, interesak eta beharrak jaso dira. Jardunaldiaren garapena: aurkezpena eta egoeraren azterketa Lanbideko arduradun politikoen eskutik; autoenpleguan eta ekintzailetzan esperientzia duten emakumeekin mahai-ingurua; partaideen iritziak, iradokizunak, beharrak eta zalantzak jaso; proiektuen sustapenerako baliabideen eta laguntzen aurkezpena Lanbideko ordezkarien eskutik.

# Emakumeen desberdintasuna etxe eta zaintza-lanen aurrean




**Parte hartzaileak:** 10

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Urriak 22

**Antolatzailea:** Asade

**Dinamizatzailea:**Farapi

FARAPIrekin elkarlanean, zaintzaren feminizazioari buruzko gogoeta saio bat egin da zaintzarekin loturiko eragileekin, lan horiek balioztatze aldera. Horrez gain, elkarrekin hausnartu dute zaintza lanen zein erronkari egin behar dieten aurre zaintzaileek, hala profesionalek nola ez-profesionalek. Saio horren xedea izan da batez ere emakumeek egiten duten zaintza lan hori ikusaraztea eta lantegiaren ondorio nagusiak ikus-entzunezko baten bidez gizarteratzea.

# Emakumeen parte-hartze inklusio prozesuetan: denen onurako eskubide bat




**Parte hartzaileak:** 13

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urriak 22

**Antolatzailea:** Emakunde

**Dinamizatzailea:** Sendotu

Partaidetza definitu beharko bagenu, hainbat gauzen artean, honako hau esango genuke: bitarteko bat eta jomuga bat da, talde/komunitate dimentsio bat du, ahalduntze prozesu bat da, erabaki-hartzeari lotuta dago, eta abar. Inklusio prozesuetan genero eta berdintasunean oinarritutako partaidetza sustatzearen garrantzia funtsezkoa da emakumeen egoera hobetzeko bai maila indibidualean bai maila kolektiboan. Ekintzaren helburua izan da prozesu hauek elkarbanatzea, hausnartzea, eta abar.

# Emakumeen aurkako indarkerian esku-hartzeari buruzko gogoeta ahalduntze ikuspuntutik




**Parte hartzaileak:** 12

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urriak 13

**Antolatzailea:** Emakunde

**Dinamizatzailea:** Aizan

Gipuzkoako Lurralde Historikoan esparru honetan lan egiten duten profesionalei zuzendutako saioa. Hasiera moduan, AIZAN Elkarteak editatutako "Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen Autolaguntza Taldeentzako orientabideak" Gidaren aurkezpena. Bigarrena, mahai-ingurua: Arreta zuzeneko Profesionalak. Amaitzeko, eztabaida eta elkargunea. Saioaren ondoren, egindako analisiaren inguruko eta lan modu berrien eta sortutako ideien inguruko lan-dokumentu bat osatuko da, hau partaide guztiei banatuko zaielarik.

# Emakume atzerritar eta euskaldunen artean kulturarteko elkarrizketak: Euskal kulturaren inguruko topaketak




**Parte hartzaileak:** 57

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urriak 31

**Antolatzailea:** Garaipen Elkartea eta Berditasun Saila

**Dinamizatzailea:** Gairaipen Elkartea

Gune irekia da, euskal emakumeei eta emakume etorkinei zuzendua. Funtsean, hemengo eta kanpoko beste herrialde batzuetatik etorritako emakumeen bizikidetza eta trukerako gune bat da, ikuspegi feminista eta ahalemaile batetik eratua. Elkar ezagutzea funtsezkoa da aurreiritziak gainditzeko eta diskriminazioak gutxitzeko; horregatik, egindako ekintzen bidez, nagusiki, hainbat herrialdetako testuinguru soziopolitikoa, kultura eta gastronomia partekatu dira. Lehenengo urtean (2011), proiektu honen ardatza beste herrialde batzuk izan ziren, baina aurten nabarmendu nahi izan dugu beharrezkoa dela emakume etorkinek euskal kultura ezagutzea; izan ere, ikusi dugu ez dutela ondo ezagutzen harrera egin dien kultura eta ez daudela behar bezain ondo txertatuta kultura horretan.

# "Mexico-ko feminizirioaren aurkako borrokaren experientziak"



**Parte hartzaileak:** 10

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Azaroak 4

**Antolatzailea:** Intered

**Dinamizatzailea:** Angeles Enriquez

Ángeles Enríquezen presentziarekin kontatuko dugu, Universidad Nacional Autónoma De Méxicon soziologian lizentziaduna, emakumeen giza eskubideetan eta indarkeriarik gabe bizitza libre batetan aditua eta Centro de Derechos Humanos Victoria Diez.eko koordinatzailea.

# Emakumeen eskubideen urraketa abortuaren harira




**Parte hartzaileak:** 7

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Azaroak 7

**Antolatzailea:** Mugen Gainetik

**Dinamizatzailea:** Nerea Izagirre

1998. urteaz geroztik, El Salvadorreko Kode Penalak abortua bere era guztietan zigortzen du (terapeutikoa, eugenesikoa eta etikoa), honek mundu mailan, abortua zigortzen duen legedi zorrotzena izatea suposatzen duelarik. Honen arabera beraz, emakumearen bizia haurdunaldiagatik arriskuan egoteak, haurdunaldia bortxaketa edo estuproaren ondorio izateak edota umekiak malformazio larria izateak ez du garrantzirik. Are gehiago, sexu bortxaketak hain ohikoak diren herrialde honetan, bortxatzen duena zigortzea prozesu luze eta gehienetan ezinezkoan bilakatzen bada, abortatzea erabakitzen duen emakumea edota modu natural batean abortua jasaten duen emakumea, 30-50 urte arteko gartzela zigorrarekin zigortua izaten da. Honen aurrean, Agrupación Ciudadana por la Despenalización del Aborto erakundeak bortxaketa larri honen berri emateko kanpaina sendoa ezarri du martxan, abortuaren eztabaidak iritzi publikoarengan eragin dezan. Gaiaren inguruko ikerlanen berri eman da hitzaldian. Hala nola gaur egungo estatu espainiarrean jazotako azken erabakiekin alderatu da.

# Emakumeen Eskubideen Auzitegi Internazionala.Viena+20, EH. Esperientzia, ikaspenak eta erronkak-2013.




**Parte hartzaileak:** 11

**Hizkuntza:** Elebidun

**Data:** Azaroak 14

**Antolatzailea eta Dinamizatzailea:** Mugarik Gabe

Ekintza honen helburua Emakumeen Eskubideen Tribunalak zer diren, EH-ko esperientzia konkretua eta etorkizunera begira dauden estrategia eta proposamenak ezagutzea izan da.

Horretarako Auzitegian eta beren antolakuntzan parte hartu zuten elkarte eta emakume oro gonbidatu ditugu, baita ere esperientzia ezagutu nahi duten guztiei ere.

Badakigu entzuteko gaitasunik ez edota zailtasunak dituzten pertsonek zailtasunak dituztela espazio hauetan parte hartzeko, horregatik zeinu hizkuntza interprete bat izan dugu gurekin

# Krisiari aurre egiteko alternatiba feministak: El Salvadorreko esperientzia



**Parte hartzaileak:** 14

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** azaroak 15

**Antolatzaileak:** Mundu bat eta Berditasun Saila

**Dinamizatzaileak:** Sonia Sánchez eta Sandra Guevara

Salvadorreko bi aktibista feminista bere herrian emakumeekin lortutako prozesu partehartzaileaz hitz egin digute. Prozesu honetan aldarrikapen feministak batu dituzte eta FMLNri zuzendu dituzte. Prozesu honetan lortutako emaitzei buruz ere hitz egin digute. Euskal Herriko testuingururako tresna oso baliagarria izan daiteke.

# Genero indarkeria emakumee gorretan

**EMAKUME GORREN HITZALDIA**

**(Zeinu hizkuntzako interpreteak izango dira)**

**Sarrera librea**




**Eguna: 2013ko Azaroak 23an.**
**Ordutegia: 17:30.**
**Tokia: Donostiako Emakumeen Etxean.**
**Okendo Kalea, 9 (Maria Kristina Hotelaren atzekaldean)**
**Hizlaria: Socorro Luengo**
**Gaia: Genero indarkeria emakume gorretan.**
**Antolatzailea: "GAINDITZEN", Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkartea.**
**Laguntzaileak: Donostiako Emakumeen Etxea**

**Parte hartzaileak:** 40

**Hizkuntza:** Elebidun

**Data:** Azaroak 23

**Antolatzailea:** Gainditzen

**Dinamizatzailea:** Socorro Luengo

Genero indarkeriak kolektibo hauengan zein eragina duen eta ezagutu izan dugu. Zelan artikulatzen den, emakumeek zelan pairatzen duten, ezaugarriak, eta abar.

# Palestinako eta Euskal Herriko emakumeen sareak ehunduz




**Parte hartzaileak:** 13

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Azaroak 28

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:** URWA, Plazandreok eta Bilgune Feminista

2013ko ekainean, EAEko 10 emakume elkarteen kidek Palestinako Lurralde okupatura bidaia egin zuten, Palestinako emakume elkarteek garatzen dituen haien eskubideen aldeko estrategiak lehen eskutik ezagutzeko xedez. Bidaia hau UNRWA Euskadi elkartearen "Jabekuntza erretratuak" proiektuaren jarduera bat zen. Emakume ordezkaritzan Gipuzkoan lan egiten duten elkarte feministen kideak parte hartu zuten, besteak beste, Malen Etxea, Plazandreok edo Bilgune Feminista elkarteetakoak.

"Palestina eta Euskal Herriko emakumeen arteko sareak ehunduz" hitzaldiaren bitartez, bidaia horretan ikasi eta bizi genuenaren berri jasan dugu. Helburua Gaza eta Zisjordanian emakumeen bizitzan okupazioaren ondorioak eta gaur egun emakume elkarteek zer nolako erronkak dituzten ezagutaraztea izan da.

# Emakume etorkinak:generoa eta aniztasun kultura




**Parte hartzaileak:** 34

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Abenduak 18

**Antolatzailea:** Jatorkin Elkartea

**Dinamizatzailea:** Hayar Samadi eta Maya Amrani

Hayar Samadi (Bidaya elkarteko kidea) eta Maya Amrani (Biltzen) izan dira gidariak. Gaur egungo emakume marokoarren profila, ahultasun eta indar guneak, emakume marokoarren indartzearen inguruan hitz egin dute. Halaber, bizitza errealaren zuzeneko testigantzak entzun ditugu, bere migrazio esperientzia gurekin elkarbanatuko duen pertsona bat izan dugulako.

# “Emakumeak ekintzaile”




**Parte hartzaileak:** 34

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Abenduak 19

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:** Fundación Fondo Formación

Fondo Formación Euskadik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin, “Emakumeen enpresagintza” jardunaldia antolatu du “Zirkinka” proiektuaren barruan. Proiektu horretan, lehenik eta behin, Lidia Gonzalezek hitz egin du; bera da proiektuko teknikaria 2005etik, aditua gizarteratze eta laneratze prozesuetan, eta proiektuaren alderdirik interesgarrienak azaldu ditu (zein talderi zuzentzen zaion, helburuak, jarduerak eta abar). Ondoren, Anuska Larrañagak, Konfia Servicios de Conciliación SLko aholkulari eta proiektu arduradunak, hitzaldi bat eman du ekonomia sozialeko entitateei buruz (jatorria, tipologia, Gipuzkoako Lurraldeko datuak, eta abar). Azkenik, “Zirkinka” proiektuko parte-hartzaile batek bere bizi-esperientzia kontatu die bertaratutakoei.

# "Ez agindu ez obeditu: autolakuntzarako tresnak" Jaurnaldiak




**Parte hartzaileak:** 55

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Urtarrilak 18

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

Gure bizialdian pertsona nahiz talde aldetik izan ditugun esperientziak aintzakotzat hartu eta gogoeta egin eta kolektibo gisa galdera batzuei erantzutea. Esate baterako: Zer egin dezakegu bakoitzak dituen ahalmen horiek (arrazismoa, klasismoa, sexismoa, dugun hierarkia, konpetentzia edo norgehiagoka) beste emakume batzuekiko harremanetan ez eragiteko? Zer eratako harremanak eta hitzarmenak izatea nahi dugu harreman eta hitzarmen horiek? Zer baldintza izan behar dugu aliantza horiek sortzeko? Zer klabe eraiki dezakegu denon artean hitzartzeko dugun gaitasuna indartzeko?Sistema patriarkala eta gure bizitzak zeharkatzen dituzten beste zapalkuntza sistema batzuk desegiteko lehenbiziko pausuaren aurrean gaude. Beste emakume batzuekin harremanak izateko modu berri batzuk izateko eta emakume mota diferenteen arteko hitzarmenak indartzeko bidea emango diguten giltzarriak aurkitzea da helburua.

# "Kontsumo Arduratsua eta genero ikuspegia" Jardunaldiak






**Parte hartzaileak:** 10

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Irailak 13 eta 14

**Antolatzailea eta Dinamizatzailea:**

Emaús Gizarte Fundazioa eta Mugarik Gabe

Emaús Gizarte Fundazioa eta Mugarik Gabe GGKE-en kontsortzioa, kontsumo kontzientea eta arduratsua lantzen duten beste elkarte batzuekin batera, kontsumoa genero ikuspegi batetik aztertu eta praktikan gutako bakoitzak ze kontsumo egiten dugun, ze ondorio dituen eta kontsumo ekitatibo baterantz jotzeko zer egin dezakegun aztertzeko topaketa honek helburua zuen. Bi egun hauetan, hainbat hitzaldi egon dira: Sistema kapitalista – kontsumo eredua – emakumeak gizartean eta horren ondorioz kontsumo motak. Txiletik esperientzia praktikoak. (Rakel Oion Encina eta Txileko Anamuri Elkarteko emakume indigena) eta "Kontsumo Ekitatibo baterako gako kolektiboak ": Nola egin zentzuzko kontsumo bat genero ikuspegitik eta zer egin mugimendu eta erakundeetatik sustatzeko. (Rakel Oion Encina)

# ERAKUSKETAK

# Emarock




**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Urtarriletik otsailera

**Antolatzailea:** Emarock eta Berdintasun Saila

Proiektu bat da, batez ere, euskal herriko emakume rock abeslariak (musikariak) erakusketa baten bidez bisibilizatu nahi ditu.

# Joan-etorriko bidaien artean, errumar rrom-en bizitzak




**Hizkuntza:** Elebidun

**Data:** Martxoan

**Antolatzailea:** Donostiako Udaleko kultur arteko bitartekaritza eta bizikidetza programa

Erakusketa honen bidez, Donostian bizitza egiten duten errumaniar ijito emakumeen sorterriak, bizitzak, familiak, lanbideak eta historia adierazten duten irudi erakusketa agertzen da.

# Emakume presoak: indarkeria matxistari buruzko gogoetak




**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Abenduan zehar

**Antolatzailea:** Martuteneko Kartzela eta Berdintasun Saila

Azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta Martuteneko espetxean dauden emakume presoak indarkeria matxistaren inguruko hausnarketaren inguruko tailerra egin zuten. Tailer honetan hausnarketaz gain emakume izateagatik pairatzen ditugun indarkeria egoerak kaleratu nahi izan dituzte. Kartel hauekin emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak eta emakumeok pairatzen ditugun indarkeria espezifikoak azaleratu nahi izan dituzte. Emakume presoen ekarpen hauek bereziki garrantzitsuak dira, lan taldean eta lankidetzaren bitartez indarkeria matxistaren inguruko lanketa hau egin dutelako kartzelaren barruan. Zoriondu eta eskerrak eman nahi diegu parte hartu duten emakume guztiei, ze gaur beraien zatitxo bat Emakumeen Etxean daukagu.

# BESTELAKO JARDUERAK

# “Nire auzoko” sari-banaketa




**Parte hartzaileak:** 55

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** Urtarrilak 18

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

**Dinamizatzailea:** Itziar Bastarrika

Espazio honetan zintzilikatu diren irudiak eta proiektatu diren laburrak “Nire Auzoko Emakumeak” argizki eta laburmetrail lehiaketetan finalera iritsi diren lanak dira. Honelako ekimenekin, partehartzea sustatu, sormena garatu eta egindako lanek zer pentsatua ematea izan du helburu. Gure inguruan aztertu, eta aurkeztu diren proposamenak bisibilizatuz jendartea ere hausnarketara bultzatu nahi izan dugu.

# Berdintasun Foroaren aurkezpena




**Parte hartzaileak:** 9

**Hizkuntza:** Gaztelera

**Data:** Otsailak 9

**Antolatzailea:** Berdintasunerako Foroa

**Orain arte Berdintasunerako Foroan eginiko lanaren aurkezpena da.**

# Zine Forum feminista










**Hizkuntza:** Elebiduna

**Data:** Hilean behin

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:**Emakumeen Etxea Elkartea

Urtarrilan: : Albert Nobbs (2011) Rodrigo García zuzendaria.
Otsailan: Criadas y señoras (2011) Tate Taylor zuzendaria.

Martxoan:Cairo 678 (2010) Mohamed Diab zuzendaria.

Apirilan: Las amigas (1955) Antonioni zuzendaria.

Maiatzan:Mariposas en el hierro (2012) Bertha Gaztelumendi zuzendaria.

Irailan:La fuente de las mujeres (2011) Radu Mihaileanu zuzendaria.
Urrian: Margarethe von Trottaren zine zikloa:

- Las hermanas alemanas (1981)
- La calle de las Rosas (2003)
- Locura de mujer (1983)

Azaroan:Hannah Arendt (2012) Margarethe von Trotta zuzendaria.

Abenduan:XXY (2007) Lucia Puenzo zuzendaria.

# Emakumeen etxeko astea




**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea

# Beldurrak Gurekin Jai! Liburuxkaren aurkezpena



**Parte hartzaileak:** 14

**Hizkuntza:** Euskara

**Data:** azaroak 20

**Antolatzailea eta dinamizatzailea:** Bilgune Feminista

Euskal Herriko Bilgune Feministak eta EMAGINek elkarlanean eginiko hiru urteko lanaren emaitza argitaratu dute: Beldurrak gurekin jai! Ekin Autodefentsa Feministari liburuxka. Helburua norberak bakarka zein taldean autodefentsa feminista landu eta egunerokoan integratzeko tresna bat, euskarazkoa, sortu eta emakume guztien eskura jartzea izan dute.

Autodefentsa feminista indarkeria sexistari aurre egiteko jarrera bezala definitu dute liburuxkan. Tarte berezia eman diote, beraz, indarkeria sexistaren makineria ezaugarritzeari, eta eraso sexistak identifikatzeko eta hauei aurre egiteko estrategiak proposatu dituzte. Era berean, norbere ezagutzan ere sakondu dute, estimu, zaintza eta emozioen inguruko diskurtsoak garatuz.

# 3.Urtemugaren Jaia




**Data:** Abenduak 1

**Antolatzailea:** Emakumeen Etxea Elkartea eta Berdintasun Saila




# Emakumeen gunea, denona.

# Zurea!